San Fermin eta Nafarroa Oinez eskutik argazki erakusketa iraunkorra

Urtero Nafarroa Oinezek Takoneran antolatu ohi duen Oinez txokoan Sanferminetako argazki zaharren erakusketa antolatu nahi dugu aurten Garcés de los Fayos Ikastolak. Hain zuzen ere, 80 argazki bildu nahi ditugu, Oinez txokoaren sarrerako korridorean ikusgai egon daitezen. Argazkiek hainbat urtetan girotuta egon behar dute, horien bidez Sanferminen historia errepasatu ahal izateko.

Parte hartu nahi duen orok helbide elektroniko honetara bidali behar ditu argazkiak: sfargazkiak@oinez.ikastola.eus

Argazkiaren ezaugarri teknikoak: JPG formatua, 30x40 neurrikoa, 300 puntu/7hazbete

Argazkiarekin batera honako hauek zehaztu behar dira:

Argazkiaren izenburua (baleuka)
Argazkiaren egilea
Argazkia non egindakoa den
Argazkia zein urtetan egindakoa den

Oinez txokoan ikusgai egongo diren argazkiak profesionalez osatutako epaimahaiak aukeratuko ditu. Argazki guztiak Nafarroa Oinez webgunean izango dira ikusgai.

Bidaltzaileak Nafarroa Oinez antolakuntza baimenduko du aurkeztutako argazkia erabiltzen eta hala izanik, ondoko adierazpena sinatuko du.

Nafarroa Oinez antolakuntza baimentzen dut igorritako argazkia(k) Oinez txokoan antolatuko den erakusketan edo eta Nafarroa Oinez webgunean ikusgai egon daitezen. Izen-abizenak NAN zenbakia Sinadura

Lanak bidaltzeko epea ekainaren 13an amaituko da. Proposatutako datak oso egokiak ez direla jakinda, aldez aurretik eskerrak eman nahi dizkizuegu parte hartzeagatik.

Erdian erein!

San Fermín y Nafarroa Oinez de la mano en una exposición permanente de fotografía

Garcés de los Fayos Ikastola quiere organizar una exposición de fotografías antiguas sobre las fiestas de San Fermín en el espacio Oinez txokoa que Nafarroa Oinez organiza todos los años en los Jardines de la Taconera. En concreto la organización pretende recopilar 80 instantáneas que estarán expuestas en el pasillo de acceso al espacio. Las fotografías tienen que estar ambientadas en distintos años, de tal forma que a través de ellas se pueda repasar la historia de los Sanfermines.

Las personas que quieran participar, deberán enviar sus fotografías al siguiente correo electrónico: sfargazkiak@oinez.ikastola.eus

Características técnicas de las fotografías: formato JPG, tamaño 30x40, 300 puntos/7 pulgadas

La fotografía se acompañará de la siguiente información:

Título de la foto (si la tuviera)
Autor/ra de la fotografía
Lugar en el que se tomó la imagen
Año en la que se realizó

Las imágenes que se expondrán en Oinez txokoa serán seleccionadas por un jurado compuesto por profesionales. La totalidad de las imágenes recibidas se mostrarán en www.nafarroaoinez.eus

La persona que envíe la(s) fotografía(s) autorizará a la organización de Nafarroa Oinez a hacer uso de las imágenes y por tanto firmará la siguiente declaración.

Autorizo a la organización de Nafarroa Oinez a hacer uso de la(s) imágene(s) enviadas para que sean expuestas en exposición que se organizará en Oinez txokoa y para que estén visibles en www.nafarroaoinez.eus Nombre, apellidos DNI Firma

El plazo para enviar los trabajos concluye el 13 de junio. Siendo conscientes de lo ajustado de las fechas planteadas, nos gustaría agradecer de antemano vuestra participación.

Erdian erein!